

# TRANSIZIOALDIARI BURUZ

**Diktaduratik demokrasiara igarotzeko modeloen  
garrantzia Euskadiko mugimendu iraultzaileentzat**

**Emilio Lopez Adan**

**Idazlea**

Lan honek diktaduratik demokrasiara igarotzeko modeloak ikertzen ditu. Modelo iraultzaileak eta modelo paktatuak kontrajartzen dira. Haien jiteak eta aniztasuna aipatzen dira, azken hogeitamar urteotan, Hego Europan, Ertamerika eta Hegoamerikan, Ekialdeko Europan eta Afrikan.

Euskadiko modeloarekin konparatzen dira. ETaren inguruan onartu den modeloaren jatorriak, elaborazioa eta aldaketa ikertzen dira. Konparaketaren ondorio nagusia hau da: Estatu Espainolaren trantsizioaldiari buruz Euskadin onartu zen analisisia eta hari dagokion modelo iraultzailea desagokiak direla oraingo egoera historikoan.

---

**Lehen atala:**  
**Modelo nagusiaren edukina**  
**eta garatzea**

---

Garai batez, trantsizioaldia aipatzerakoan sozialismotik komunismora zihoan denboraz mintzatzen zen. Hori, tradizio iraultzaile optimista bati zegokion, sozialismoa aurrepauso bat bezala, kanpoko erasorik gabe ia itzulezina, kontsideratzen zuena; Estatuaren eginkizuna, alderdiaren lekua, demokraziaren formak eta edukinak, eztabaidatu ziren. Puntu nagusi bat, adibidez, hauxe genuen: batzurrentzat, Alderdiaren Diktadura, berez, komunismoarentzat oztopo gertatzen zen bitartean, ortodoxo maioritarioentzat, berriz, Estatuaren indartzea bere desagertzearen aurrepausoa zen...

Gaurregun, eztabaida horiek urrunak eta kasik funtsik gabekoak iduritzen zaizkigu, ikusirik nola estatu sozialistek barnetik porrot eta leher egin duten, nola, perspektiba historikoaz ikusirik, sozialismoaren aldiak aro pasakor bat dirudien, kapitalismoaren bi denboren artean mugatua.

Lan honetan aipatuko den trantsizioaldia beste bat izanen da, diktaduratik demokraziara doana, hain zuzen. Trantsizioaldi honek zuzenki hunkitu gintuen, Euskadiko ezker iraultzailea frankismoaren azken denboretan sortzen bait da, eta gaur arte egoki kontsideratu diren ikuspegi ideologikoak eta estrategikoak oraingo demokraziaren lehen denboretan garatzen direlako. Hain zuzen,

ikuspegi horien edukina eta garatzea ikertzea da lehen atal honen edukina.

Euskadiko nazionalismo iraultzaileak, oro har, ezkerren ideia nagusi hau onartu du: aldakuntza historikoa iraultzaren bidez egiten dela. Tradizio honek bi erreferentzia nagusi ditu: Frantziako Iraultza Handia (1789) eta Urriko Iraultza sobietarra (1917). Ikuspegi hau, boterean diren klaseek onartutako aldakuntzekiko mesfidantza handiaz hornitzen da, eta aldakuntza egiazkotzat jotzeko bi baldintza politiko ezartzen ditu: antzinako boteredunen suntsitzea bata, eta iraultzaileek boterea beren eskuetan zuzenki har dezaten bigarrena.

Jakobismotik leninismora doan haria oso zuzena da eta, gainera, esplizituki bereganatu zuten ikerle eta politikari ezkertiar anitzek.

Burgesiak edo inperialismo kapitalistak dominatzen zuen gizarte baten aldakuntza egiazkotzat kontsideratzeko, tradizio honek puntu nagusi batzu azpimarratzen zituen. Bat, oso ezaguna, egiazko demokrazia eta demokrazia formalaren arteko diferentzia zen: demokrazia burgesak onartutako libertateak (biltzekoa, ideiak agertaraztekoa, alderdiak egitekoa, eta, bereziki, hauteskudeen errepikatze libre eta formalizatua) funskabeko jotzen zituen, botere ekonomikoa lehengo klase zanpatzaileen eskuetan gelditzen zen bitartean. Egiazko libertateak lortzeko, botere ekonomikoa herriaren eskuetan ezarri behar zen; askotan, herriaren eskuetan aipatzerakoan herriaren egiazko interesak ulertzen eta gidatzen

zituen minoria ulertzen zen, hots, Alderdi Bakarraren diktadura. Baina desbideratze honek, garrantzitsua izanki, ez zuen aldatzen antzinako ukandunen desjabetzeko beharra.

Euskal ezkerren modeloa obratzen denean, erreferentzia historiko europar horiek (Frantziakoa eta Sobietar Batasunarena) ez dira bakarrak. Deskolonizazioaren urteetan gaude, eta mugimendu honetatik ere heldu zitzaizkigun haizeak.

Besteak beste, bat gogoratu behar da: **Frantz Fanon**. Esperientzia zuzenaz dakigu gure artean irakurria izan zela; haren lan batzu euskaratu ere egin ziren. *Les Damnés de la Terre*, **Jean Paul Sarteren** hitzaurre deikor batekin, 1961ean argitaratu zen; 1970ean, **Arantza Urretabizkaiak** eta **Ibon Sarasolak** *Afrikar Iraultzaren alde* itzuli zuten.

Han ziren bi ideia nagusik markatu gintuzten. Bata, biolentziaren apologia: biolentzia ez zen soilki bazterrezinezko beharra; hori baino gehiago zen, kolonialismoak sortutako konplexu guziak gainditzeko bide katartikoa, hots, duintasuna bereganatzeko zantatuak duen aukera kasik bakarra. Bestea, nazionalismoaren lekua: nazio-askatasuna lortzeko borroka, nonbait, beste borroka-mota guziak biltzen zituen, markatzen zituen eta, bereziki, etsaiak ezinasimilatuzko kutsua ematen zien.

Afrikan, ideia hauekin ongi uztartu zen marxismo-leninismoa. Kasu batzutan, elkartze trinko eta garrantzitsua eman zen, mundu

osorako handitasuna zeukaten lider eta mugimenduei esker: hor dugu **Amilcar Cabralen** kasua.<sup>1</sup> Beste okasio askotan, eta gero ikusiko dugunez, Alderdi Bakarraren diktadura justifikatzeko erabili ziren nazionalismoa eta leninismoa.

Gurean ere, ETaren inguruko mugimenduaren ardatzean agertzen dira nazionalismo intransigentea eta borroka armatua: ondoan, marxismo-leninismoa dabil, kasu batzutan giltzarritzat hartua, beste askotan epifenomeno gisa kontsideratua, baliagarria nazionalismo bortitza justifikatzen duen heinean, eta, berez, kontingente eta botagarria nazionalismo hori justifikatzeko edo indartzeko gauza izango ez denean.<sup>2</sup>

Euskal modeloaren elaborazioa (edo, hobe esanda, ETaren inguruko modeloa, hau nagusia bait da ezker abertzalean), honela labur daiteke.

1967an egin zen **Bostgarren Biltzar Nagusian** finkatu ziren gero behin eta berriz errepikatuko diren oinarri ideologikoak. ETA sozialismo eta askatasun nazionalaren alde borrokatzeko egituratzen da; askatasun nazionala independentziarekin identifikatzen da; borroka nazionala eta soziala elkarrekin doaz, bata bestetik bereiztezina, prozesu iraultzaile bakar barnean uztartuta. Iraultzaren protagonista Euskadiko Herri Langilea da, eta euskal borroka bere lekua dauka mundu osoan zehar hedatzen den mugimendu iraultzailean, jazartze antkolonialistek eta nazioarteko langileen mugimenduak osatzen duten batasunaren barnean.

Marxismoaren lekua berezia da. Biltzarreak deklaratu zuen marxismoa oso metodo egokia zela orduko egoera ezagutzeko eta, beraz, "analisi-tresnatzat" onartu zuen; baina ideologikoki ez zuen bere burua marxistatzat definitu nahi izan.

Marxismo-leninismoaren onartze esplizitu bat eginen da gero, **1971 eta 1973 inguruan**. Hasieran, *Burgosko Auziperatuen Gutuna* publikatu eta onartu zuen ETAk, gero, tankera honetako artikulua eta manifestu desberdinak argiratu ziren Erakundearen aldizkarietan.<sup>3</sup>

Definizio marxista honen inguruan, elementu batzu azpimarratu ziren urte haietan. Bat, klase-aliantezko analisia, non Fronte Nazional bat onartzen bait zen, baina beti aro pasakor gisa, iraultza sozialistaren interes eta indarren arabera; beste bat, Alderdiari buruz, baina hemen leninismo berezi batek hartu zuen lehentasuna. Leninismoa esaterakoan, abangoardia zuzentzaileari dagozkion mekanikaz eta mistikaz ari naiz; euskal borrokaren egitura eta historia zirela eta, abangoardiaren eginkizuna ez zitzaion Alderdi Komunista bati suertatu, baizik eta dagoeneko ongi finkatua zen ETA erakundeari. ETA zen, beraz, prozesuaren zuzendaria, eta, gainera, rol hori guztiz lotuta zitzaion borroka armatuaren praktikari.

Nere iduriko, marxismoaren onartzea ez zen berdina militante guziengan. Batzuzentzat, orokorra; beste batzuk, berriz, lehen esan dudak bezalaxe, onartu zuten, hau da, momentu hartan borroka abertzalea

indartzeko modu gisa, baina guztiz kontingentea, esan nahi bait da, gehigarri gisa, gero desegokia gertatzen bazen dolurik gabe bazterrean uzteko. Berriz, leninismoaren onartzea edo, bederen, abangoardiaren erroren barnatzea, askoz orokorragoa zen.

Oinarri ideologikoak denbora horietan finkatzen badira, lerro nagusi estrategikoak **1974-1978 artean** dira onduko eta hau, hain zuzen, erreformari buruzko analisisien bidez. Hots, Estatu espainolaren diktaduratik demokraziara pasatzea da analisis-gunea, eta honek justifikatzen du gaurko hitzaldiaren gaia.

ETAk berehala baieztatu zuen Estatuan ez zela iraultza sozialistarik gertatuko: honek eten bat sortzen du Euskadiko eta Espainiako egoeren artean. Bestalde, monarkia eta demokrazia botere faktikoen nagusitza egokitze eta izkutatze formatzat salatu zituen.

Horiek horrela, ETAk bi fase bereizten zituen: lehena, egiazko demokrazia lortzeko; bigarrena, Euskal Estatu Sozialista sortzeko. Lehena, KAS alternatiba lortzearekin identifikatu zuen; bost puntu horien onartzeak frogatuko zuen alegiazko demokrazia egiazko bilakatzen ari zela. Borrokaldia honetan, Erakunde armatuak borroka ofentsiboa eramango zuen: indar-harremanen egoera ikusirik, borroka hau ezin zitekeen insurrekzio herritarra izan, eta higadurazko gerla iraunkorren forma hartu beharke, min handia emango zuten etengako atentatuen bidez. Behin

KAS alternatiba gauzatua, ETAK jarrera defentsiboa onartuko zuen, demokraziaren lorpenak entsegu atzerakoien aurka defendatzeko.

Urte haietan ere ENAMen barneko egituren eta hierarkien hezurdura onartzen da. Erakunde militarra, eta ez Alderdi bat, abangoardian; KAS, abangoardiaren inguruan beste talde guztiak biltzeko; Erakunde herritarrak oinarrian; eta, guztiok, zentralismo demokratikoaz zuzenduta.<sup>4</sup>

Oro har, eta trantsizioaren edukinari dagokionez, ETAK garbi esan zuen trantsizio horretaz ez zuela sinesten. Liberalizazioak erregimenaren egoitze bat suposatzen du, baina ez du haren natura aldatzen: inperialismoa, oligarkia eta armada beti gelditzen dira nagusi eta ETAK behin baino gehiagotan errepikatuko du erregimenaren natura diktadura militarra dela. Beraz, oligarkiarekin koexistentzia eta bakea onartzeko, politiko eta militarri ezagutu beharko zaio subiranotasuna Euskal Herriari, eta etorkizuna erabakitzeko segurtasuna eman beharko zaio. Hots, KAS alternatibaren onartzea demokraziaren neurgailu bilakatzen da.

Esan dezadan iraultzaren bigarren fasea, Estatu Sozialista lortzekoa, alegia, urrun gelditzen dela finkatze estrategiko hauetan. Dudarik gabe, iraultza soziala egiteko egoera ikertzerakoan, errealista gertatu zen ETA; bere ezkerretik, bereziki LAIAREN partetik, kritikak egin zitzaizkion, errealismo hori, azken finean, iraultza sozialaz ahazteko modu bat zela esanez. Baina iraultza

horretaz sinestuta zegoen jende asko jarraitu edo sartu zen ETAN, irultzailetasuna borroka armatuarekin, besterik gabe, identifikatzen zuten abertzale soilen ondoan.

**1978tik 1988ra** doan unea ez dut modu zuzenaz ezagutu. Kanpotik, halere, aski ikusi dugu. Eta barnean ibili direnen lehen testigantza baliagarriak argitaratzen ari dira.<sup>5</sup>

Laburtuz, urte horietan lerratze hiperleninista bat gertatu dela iduritzen zait. Hasiera batean, modelo asanblearioak baztertu dira, bai ENAMeko erakundeetan (LABen kasua, 1978an) bai mugimendu osoa artikulatzeko entseguetan (Euskal Herriko Batzare Nagusiaren porrota, 1980an).

Hain zuzen, eskema horien aurkakoa, bloke monolitikoaren kontzeptua, alegia, hedatu da. HASI dugu lehen protagonista bat, 1978an; mugimendu osoari dagokionez, 1981ean egin da KAS-HBren berregiturapenean nabari-nabaria da molde zentralisten garaipena.

Gerokoetan, eskema honek hartuko ditu itxura karikataturalak (hala nola modelo sobietarraren goraiapatze sistematikoaren denboretan), edo molde aski tragikoak, bereziki Algerreko negoziaketan inguruan, non blokearen barne-lotura indartzeko, mugimendu sozial askotan (internazionalistak, ekologia, emakumeak...) hausturak eragin bait ziren.

Duela gutxi arte, molde hiperleninistak izan dira nagusiak. Baina

haien eragina entelegatzeko, elemendu berezi batzuren presentzia iraunkorra azpimarratu beharko dugu.

Lehena, ortodoxia marxistaren eskasia. ETA ez da inoiz alderdi komunista klasikoa izan, eta marxisten presentzia iraunkorrak ez du ENAM erakunde marxista-leninista ortodoxo bezala egituratu ere. Nazionalismoaren lehentasuna beti nabaria izan da, eta militante askoren buruan hau da borrokaren jite nagusia, non ez den bakarra.

Bigarrena, nahiz eta zuzendaritza politiko bakarra onartzen ez duten mugimendu sozial edo asanblearioez mesfidatu, ENAMek beti indar berezia egin du borroka-leku gehienetan present egoteko. Honek etengabeko tirabirak sortu dizkio, zeren eta nekez defenda bait daiteke mugimendu zibilen lehentasuna botere publikoei begira, mugimendu horiek zuzendaritza militar trinko baten azpian egotea onartzen den bitartean. Beraz, autoeratzearen tradizioarekin haustura emana izanagatik, honek ez ditu zubi guziak moztu. Hain zuzen, azken denboretan **demokrazia partehar-tzailea** hainbeste goraipatzen ari denean, tendenziaren aldatzeko parada ikus liteke.<sup>6</sup>

Azken elementu berezia, eta agian nagusia, ENAMen den kapital sinboliko eta osagai emozionalei dagokie. Ikerle anitzek<sup>7</sup> azpimarratu du faktore horien leku nagusia. Askatasun nazionala lortzeko borrokan, klandestinoek, presoek, erbesteratuek, gune zentral eta gogor bat osatzen dute; beraiek daramate

bidean hildakoen ordezkariak, eta mugimenduak odola ematen dutenei zor zaien zilegitasuna ezagutzen die. **Pako Letamendiak**<sup>8</sup> dioenez, "gaurregun, ezker abertzalearen multzoan, Erakunde Armatua da boteregunea, eta komunitate honen barnean duen legitimitatea pasioez beteriko identifikazio-prozesu batean finkatzen da".

Laburtzeko, ETA eta ETAREN inguruko mugimenduetan nagusi izan den trantsizio demokratikoari buruzko analisia, hasi-hasieran aipatu ditugun jarrera eta analisiekin kide daiteke.

Egiatzko aldakuntzak prozesu iraultzailearen ondorioz aurkezten dira. Euskadin, demokrazia eta libertatea askatasun nazionalaren ondoan finkatu dira batez ere (independentzia, burujabetasuna edo autodeterminazioaren ondoan, nola gerta), eta honek uztartzen du gure prozesua tradizio anticolonialistarekin. Halere, sozializatzea, nazionalizazioak eta enparauak ere aipatu dira usu, baina askotan erredukzio nazional-estatal gisa kontsideratuta.

Prozesu iraultzailearen giltzarria borroka armatuan datzala behin eta berriz errepikatu da. Hau omen da sistemak inguratu ezin dezakeen borroka-mota bakarra, hau da, garaiaren garantia; honek Erakunde armatuak buruan duen egitura piramidala justifikatzen du.

Sistemak berak onartutako aldakuntzaz mesfidantza osoa erakutsi da; are gehiago, erreformaren gezurra azpimarratu da, duela gutxi arte Estatu

Espainola diktadura militar gisa salatu da, eta botere faktikoen demokrazia bere gisa kontrolatzen dutela bueltarik gabeko egiazat kontsideratu da.

Erreformaren huts egitea Euskadin da, ENAMen diskurtsoan, tai gabe itzultzen den diskurtsoa. Egiazko demokrazia iraultzaileek ezarritako baldintza taktikoen onartuz bakarrik jinen dela esateak, prozesu iraultzailearen lehentasuna konfirmatzen du.

Bilakabide honetan, mugimendu iraultzailearen barne-egitura eta kohesioa ere era iraultzaile-leninistaz ulertu dira. Ideologiko eta estrategikoki guztiz onartu da talde armatuaren lehentasuna; iraultzailetasunaren marka nagusia, edozein osagai ideologikoren gaintetik, borroka armatua praktikatzeko gaitasunean datza. Euskal Herrian, abertzaletasunak ematen du iraultzailetasuna, eta ETAREN militanteen inguruan sortu den identifikazio-prozesua guztiz bestitu da osagai emozionalaz.

Azken elementu honek, ingurune emozionala alegia, leninismoarekin bat egin du barne-kritika oztotatzeko. Zuzendaritza klandestinoaren jarrerak kritikatzeko, ETAREN inguruan dagoen unibertso osoari uko egitea kontsideratu da usu. Saldukeria eta laidotzat jo diren kritikei, arneguz eta irainaz erantzun zaie.

Gure lagun batek behin esan zigunez, ETAz mintzatzeko bi jarrera posible bakarrik onartzen dizute ENAMen: apologia ala traizioa. Berriz, estrategiaz, hala nola taktikaz

eta bereziki ekintza bortitzen maneraz, desakordio handiak izan ditzakegu eta kritika zorrotzak egin daitezke, onarturik militanteek borrokatzeko dituzten arazoak, jende horien emankortasuna mirestuz, eta, gainera, askatasun nazionala eta iraultza soziala egiteko borondatearekin. Agian, autoritarismoa eta azalezko irrazionalkeria altxaturik, ENAMen barnean eztabaidarako aroa hurbiltzen doa.

---

**Bigarren atala:**  
**Hausturaren kontra, Akordioa.**  
**Modelo berria nagusi**

---

Gure artean nagusi den jarrera, krisian dago. Ikerle desberdinek arakatu dute diktaduratik demokraziara pasatzeko modeloen maiztasuna azken urteotan; haustura bortitzaren moldea, hala nola Sobietar Batasunean 1917an, ez da maiz errepikatu. Aipa ditzadan kasu nabariak: Kuba 1951ean, Portugal 1974ean (laster edukinaz aldatua), Nikaragua 1979an (oraingo hauteskundeetan sandinisten eskuetatik joana).

Berriz, beste molde bat ugaltzen ari da. Modelo honentzat, demokrazia da, hain zuzen, formazko demokraziaren garaipena; are gehiago, demokrazia formala, garapen ekonomikorako oinarritzat eta justizia soziala bideratzeko abiapuntu posible bakar bezala jotzen da. Multipartidismoa eta hauteskunde demokratikoen errepikatze garantizatua, hala nola libertate formalen ezagutza osoa, ezinbestekotzat ematen dira. Bukatzeko, demokraziak iraun dezan trantsizioa boteredunekin lortutako akordioen



bidez lortu behar omen da; dikta-  
duraren uzkaillte bortitza nahi duten  
ezkertiarak estremistatzat salatzen  
dira: eskuin muturreko indarren jokua  
egiten duten demokraziaren etsaiak  
kontsideratzen dira, beraz.<sup>9</sup>

Tradizio iraultzailearentzat, mo-  
deloen uzkaillte honek kinka berezi  
eta larria suposatzen du. Noski,  
trantsizio baketsua, iraultzarik  
gabekoa, posible eta beharrezkoa zela  
esateko, beti izan dira ahotsak. Baina  
adibide historikoak kontuan harturik,  
eta gizartearen abiada optimismo  
mekanizistaz analizaturik, irault-  
zaileek jarrera horiek arbuiatu egin:  
edo ezgauza zirelako, edo klase  
zanpatzaileen maniobra hutsak bezala  
salatuz.

Orain, hain zuzen, iraultza  
bortitzari leporatzen zaio zerbait  
aldatzeko desegokia dela, eta, haren  
ondorio nagusia eskuinmuturreko  
indarrei estakuruak ematea dela esaten  
da. Azken finean, beraz, aldakuntza  
oztopatzeko baizik ez omen du balio.

Aldakuntza kopernikar honen  
arrazoiak, hiru ataletan bilatu behar  
dira:

- 1- Azken hamabost urte hauetan  
izandako esperientzietan.
- 2- Komunismoak, doktrina gisa eta  
sistema gisa, sofritu duen  
higadura eta porrotean.
- 3- Demokraziak, liberalismo eko-  
nomikoarekin batera, sistema  
politikoak legitimatzeko lortu  
duen leku zentrolean.

Ikusiko dugunez, hiru atalak elkarri  
lotzen zaizkio, eta taulak badu argi  
bezainbat ilun. Baina inork uka ezin  
dezakeena, uzkaillte-fenomenoa bera  
da.

Artikulu honetan, lehen fenomeno  
ikertuko dugu bereziki. Abiapuntua,  
erregimen diktatorialen desagertzea da;  
aldakuntza-denbora, **trantsizioaldia**  
da: hau da gehien okupatuko gaituena.  
Behin trantsizioaldia ongi abiatua,  
sistema demokratikoaren **bermatzea** da  
gakoa, inboluzioaren arriskuak guztiz  
baztertu arte. Erran gabe doa, aro  
guztiak elkarri lotuta daude.

Erregimen autokratiko guztiak zaku  
borean ematea da, hain zuzen, duela  
gutxi arte eskuinak eta ezkerak  
desegokitzen jotzen zuten jarrera.

Ezkerrak ez zuen edozein diktadura  
eta proletargoaren diktadura gauza  
beratzat hartu nahi, erregimen  
eskuindarren funtsa, hain zuzen,  
proletargoaren estatu diktatorialak  
egin nahi zuenaren kontrarioa zelako.  
Libertate formalen gabezia, egiazko  
libertateen presentziak eta helburu  
komunistak konpentsatzen omen zuten.

Eskuin aldetik ere, ordena  
defendatzeko erregimen diktatorialak  
eta diktadura komunistak ez zituzten  
parekatu nahi. Desberdintasun hori  
sentiarazteko **totalitarismo**<sup>10</sup> kontzep-  
tua asmatu eta zabaldu da 1945etik  
gaur arte. Erregimen autoritario-  
kontserbadoreak eta erregimen  
totalitario-komunistak hain desber-  
dinak ziren non, 1976an **Kirkpatrick**  
anderea, Estatu Batuek ONUn zuten  
enbaxadoreak, jakin erazi zuen



bezalaxe, lehenak berez zuzentzen ahal ziren eta besteak betirako demokraziaren etsaiak gelditzera kondenatuak bait ziren.

Bereizketa horiek bazuten, eta badute, funts bat. Baina gertatzen ari dena ikusirik, demokrazia da bilakabide guztien termino garrantzitsuena. Beraz, hara heltzeko trantsiziobideak ikertzeko, zilegi begigu denak elkarrekin ikustea.

Historikoki, **Hego Europa** da lehen atala: Portugal, Espainia eta Grezia. Gero, **Hego Amerikako** kasuak ditugu: 1970.eko hamarkadan, diktadura zen Hego Kono osoan, gehi Bolivian, Ekuadorren eta Perun; 1979an Ekuadorren eta Perun hasi zen prozesua, eta nahiz eta bermatze-puntua oso desberdina izan leku batetik bestera, demokratizaziorako trantsizioa egin da Argentinan, Bolivian, Brasilen, Ekuadorren, Txilen, Paraguayn, Perun eta Uruguayn. Inon ez du prozesu honek era iraultzailerik hartu.

**Ertamerikaren** egoera beste bat da. Estatu Batuek onartu dute Hego Amerikaren trantsizioa, baina beti izan dute Ertamerika diktaduren bidez gobernatzeko etengabeko jarrera. Hemen, bertakoen borondatea (Contadorako taldeaz eta laguntzaileaz ari naiz, bereziki) eta oso urruneko eraginak (hala nola Europako Kontseilua eta Internazional Sozialistarena) hartu behar ditugu kontutan EE.BB.en inertzia okertzeko entseguetan. Nikaraguako kasua berezia izanki, esan dezadan demokratizatze entseguak izan

direla, 1980tik gaur arte, Guatemalan, Hondurasen, Panaman eta El Salvadorren.

Heldu berriak, eta zein arin!, **Ekialdeko Europako** populuak dira. Alderdi bakarreko sistemak hondatu dira eta, fortuna desberdinekin, demokrazia errepresentatiboaz eratu dira erregimenak. Trantsizioa bukatutzat eman daiteke Ekialdeko Alemanian, Hungarian, Polonian eta Txekoslovakian; nahasketa handiak dira oraindik Errumanian eta Jugoslavian, ez hain sakonak Bulgarian. Ekialdeko arazoetan, demokratizazioaren prozesuan, bi elementu nagusi ageri dira ikergai: bat, kanpoko eragina, eta, hain zuzen, Sobietar Batasunaren aldakuntza eta Vartsoviako Itunaren desegitea (kanpoko "baimena" Hego eta Ertamerikan ere garrantzizkoa da, dudarik gabe); bigarrena, **nazionalismoa**.

Nazionalismoa oso fenomeno proteiformea da: diktadurapean den herri baten askatasuna lortzeko, demokrazia ez izan daiteke; etsai etnikoak ukatzeko eta zanpatzeko, demokraziaren aurkakoa, demokraziaren jite nagusi bat, hain zuzen, minoriei ematen zaien tratamendua bait da; muga-borroketan sartuta diren herrietat (Balkanetan bezala), edozein heroismo edo ankerkeriarentzat oinarria da.<sup>11</sup> Oro har, eta **Alain Touraine**nek dioenez, "askatasun nazionalerako mugimendua ez da, berez, ez demokraziaren aldekoa, ez aurkakoa". Dudarik gabe, demokrazia balore nagusi bihurtzen ari den denbora hauetan, nazionalismoa da,

erlijioarekin leku batzutan, herri-adhesioa eta mobilizazioa erdiesteko agertzen zaion lehiakide nagusia.

Kasu anitz aipatu dugu. Trantsizio-moldei buruz, sailkapen-modu desberdinak proposatu dira. Eta kasu bakoitzak bere berezitasunak ditu: Argentinan, Armadak Malvinetan jasandako hutsegite lotsagarriak eman zuen abiapuntua; Paraguayn, berriz, Armadak berak abiatu du prozesua; Uruguayn, Brasilen eta Txilen, era desberdinez, negoziazioek eta paktuek izan dute lehentasuna....<sup>12</sup> Erran gabe doa, sailkapen guztiek izanen dituzte hutsak eta salbuespenak. Baina aski esanguratsu gertatuko zaizkigu denak. Bat eman dezadan.

Hiru atal nagusi egin ditzakegu:

**TRANSTIZIO IRAULTZAILEA:** Antzinako erregimena haustura bortitzaren bidez uzkailltzen denean (Errusian 1917an bezala).

Hona hemen kasuak: Nikaragua 1979.

Errumania (?).

**TRANSTIZIO PAKTATUA:** Esan nahi bait da, diktadurako gobernanteek eta oposizio demokratikoak itun esplizitua, publikoa ala ez, onartzen dutela elkarrekin trantsizioa gauzatzeko.

Aipa ditzagun: Espainia.  
Uruguay  
Txekoslovakia  
Polonia  
Ekialdeko Alemania

**TRANSTIZIO INPOSATUA:** Kasu horietan, boterean direnek markatzen dituzte trantsizioaren baldintzak. Gehienetan, militarren ikuezintasuna bermatzea dute helburu nagusietako bat.

Hona hemen adibideak:

Turkia  
Brasil  
Ekuador  
Paraguay  
Sobietar Batasuna (?)  
Bulgaria  
Hungaria

**MOLDE NAHASIAK:** Kasu batzutan, militarren eta herri-mugimenduen arteko dialektika gertatu da, iraultzatik hurbil baina haustura orokorrik gabe:

Portugal  
Grezia

Bestetan, Ituna eta Inposaketaren mugak nahastu dira, baina herri-mugimenduetatik aparte, elite politiko eta militarren artean:

Txile  
Argentina

Lehen esan dudanez, sailkapen honi akatsak aurki dakizkioke. Baina konklusio orokorrak aski argiak dira.

Berehala ikusten dena, hauxe da: **haustura iraultzaileen eskasia.** Errealitateak, nolabait, ezkerreko dogmak ezartzen ditu kolokan. Egia da, halere, hamabost urte aro historiko laburra dela, baina joera garaikideen erakuslea dela onartu behar dugu.

Maiztasunari dagokionez, goitik inposaturiko trantsizioa da gehien gertatu dena. Egitate hau mamitsua da. Ikusten denez, oraingo sistema mantentzeko demokrazia errepresentatiboa bide egokiena da. Betiko nagusiak prozesu guztiaren jabe gelditzen dira, eta, Mendebaldeko estatuetan bederen, **Munduko Ordena Berri** deitzen den sisteman hobeki integratzen dira. Estatu Batuek lideratzen duten ordena honek demokrazia eta merkatu-ekonomia ditu oinarri aitortuztat, baina sistemaren kontra direnak zanpatzeko eraginkortasuna ongi zaintzen du: efikazia militarren ondoan, indarra erabiltzeko zilegitasunari garrantzi handia ematen dio; eta erregimen demokratikoek etsaiak zanpatzeko daukatzen "biolentziaren monopolio demokratikoa" interesgarriago zaio diktadura itsusia baino. Nere iduriko, merkatuaren joku librea eta ordena publikoa mantentzeko, demokrazia da sistemak behar duen formula, eta hau ez soilki metropolietan, mundu osoan baino. Zenbat denbora iraunen duen ordenaren jite demokratikoak beste gauza bat da, baina epe labur edo ertainerako prebisioetan hori da joera nagusia, trantsizio inposatuen maiztasunak ikustera ematen duen bezala.

Alta, gauza bat da trantsizioa eta beste bat sistema berriaren bermatze edo konsolidazioa. Goitik egindako aldakuntzetan, konsolidazio hori dudazkoa izan daiteke. Eta hori Ekialdeko prozesuak aipatu gabe, non sistema ekonomiko kapitalistan integratzeko kemenek desestabilizazio handia sor bait dezakete.

Horregatik, **modelo gisa** aurkezten diren trantsizioaldiak paktatuak dira: hain zuzen **Espainia eta Uruguay** izaten dira beti hitzetik hortzera aipatuak. Alta, trantsizio horietan, lehen urratsak aski antidemokratikoak izan dira, parteen arteko itunen funtsa, hain zuzen, herriari inposatuko zaizkion eztabaidaezinezko baldintzak definitzea izan bait zen. Eta itun fundatzaile horiek ikusita, hiru atal berezi herriaren asmotik kanpo ematen dutela esan daiteke:

\*Diktaduran habe eta parte ziren militarren inpunitatea eta, askotan, leku berezia ordena konstituzional berrian.<sup>13</sup>

\*Paktu sozial bat, Estatu, patronal eta sindikatuen artean, propietate eta merkatu-erregelak antzinetik ongi finkatuak uzteko. Espainiako kasuan, eta ez da bakarra, kapitalismoaren onartze eta errebindikazio komunisten ixiltzea izan da itunaren edukina.

\*Paktu Konstituzionala, alderdien arteko joku politikoan ikuezinak izanen diren oinarriak finkatzeko. Sistema honen bidez, adibidez, Espainia monarkia gisa eratu zen.

Aitzin hautsi-mautsi horiek direla eta, demokrazia errerepresentatiboari eta hauteskundeen sistemari egindako kritika guztiak bere indarrean agertzen zaizkigu: azken finean, gero egin diren bozketek eta erreferendumez lehenik egosia zena onetsi zuten, besterik gabe.<sup>14</sup>

Baina diktaduratik jalgi den estatu anitzetan, Mendebaldeko erizpideen

araberako jende-libertateen estandarra lortu da, eta, emeki-emeki, antzinako demokraziekin guztiz kideko eta homologogarri gertatu dira.

Horregatik, gure hemisferioan aski unibertsala den trantsizio-molde ez-iraultzaile honen historia garaikidea ikusirik, Euskadiko ezker iraultzailearen pentsamoldea zaharkitu edo, bederen, deslekturik gelditu dela esatera behartuta gaude.

Denbora luzez, Espainiako trantsizioaren kritika izan da ENAMen argudio nagusi bat. Bai ezker abertzaleak zituen helburuei so, bai eta Euskal Herriko gehiengo batek nahi eta onar zezakeenari begira ere, trantsizioak mugatu, zigortu eta izorratu gintuen. Baina gure barneko egoerari buruz egia zena, ez zen berdin ikusten gure ingurune sozio-politikoan, esan nahi bait da Mendebaldeko hemisferioan. Espainiako trantsizioa modelikotzat jotzen zen.

Harrigarria zen, beraz, entzutea Europako demokratek lagundu behar gintuela Espainia diktadura militarra zelako; harrigarria ere sinestea Europa Batuan sartzeko Espainiako indar faktikoek ETArekin negoziatu beharko zutela; desesperagarria sinestartztea amnistia baitazpadakoa zela 1922rako... Jarrera errealista batek Espainia eta Europa ia gauza bera zirela erakutsi behar zuen, eta Mendebaldean bermatzen ari zen Ordena Berriak indar guztiak bilduko zituela jazartze iraultzaileak zanpatzeko.<sup>15</sup>

Egia ikusteak, beharbada, garaipen hurbilaren beharra sentitzen zutenak etsitzen ahal zituen, baina iraupen luzeko estrategia finkatzeko egokia zitzaigukeen.

---

### **Hirugarren Atala:** **Ezkerra bere buruari galdezka**

---

Iraultzaren esperantza hurbiletik neokontserbadurismoaren garaipena ezagutzera pasatzea ez da gozo izan inongo ezkertiarrentzat. Ezagutza honen aldiak eta erak oso desberdinak izan dira lekuz leku, bakoitzaren egoera eta tradizioaren arabera. Euskal Herria toki berezia da: European sartuta eta bitan banatua, demokraziaren zapalkuntza ezagutu eta ezagutzen du, baina ezker iraultzaileak diktadura baten kontra mamitu zuen bere estrategia eta, hain zuzen, nazionalismo iraultzailearen ildotik. Horregatik, bai European eta bai Nazionalismo Iraultzailaren esparruetan izandako jarrerak eta aldakuntzak interesatzen zaizkigu.

**Mendebaldeko European**, gure ondoan beraz, ikuspegi ezkertiarren krisi eta aldakuntza, demokraziaren arazoaren inguruan gertatu dira usu.<sup>16</sup>

**Eurokomunismoak** bi ziri sakon sartu zituen ideia ortodoxoetan. Bata, Urriko Iraultzari buruz, esanez ez zela inondik ere modelo unibertsala, baizik eta esperientzia historiko bat, iragana, eta aplikaezina orain eta hemen. Bigarrena, libertate formalei buruz beste analisi askoz positiboago bat eginez, jakitera emanez libertate horiek ez direla kapitalismoaren tron-

pakeriak, baizik eta tradizio humanista eta askatasunzale baten lorpenak: askatasun horiek, beraz, gure ondare aurrekoaren parte erauztezina dira, eta horiek gabe ez da inongo sozialismorik izanen. Are gehiago, neokon-tserbadurismoaren aurkako borrokan, egiazko demokraziaren arazoa lehen borroka-lerroan ageriko zela zioten.

**Goxismoak**, berriz, iraupen laburra izan zuen European. Borroka armatu iraultzailearen bidez sistema suntsitzeko asmoak porrot egin zuen arazo nazionalistarekin uztartzen ez zen lekuetan, eta azken hauetan iraun bado, segur asko nazionalismoari esker egin du. **Frantzia**n, 1975 inguruan bururatu zen krisia.<sup>17</sup> Europa osoan hasten dira **Soljenitsin**eren liburuak zabaltzen, eta urte hartan berean **Cunhale**k porrot egin du Portugalen. **Italiak** borroka armatuaren hedadura guztiz ikusgarria ezagutu zuen; han, 1978 inguruan koka daiteke entsegu iraultzaileen maldaz beheratze eta "berunezko urteren" hasiera, errepresioak, irrazionalkeriak eta damutzeak markatuta.<sup>18</sup>

Oro har, ezintasuna ikusten da nonnahi.

Oraingo denboretan bederen, demokrazia burgesa iraultza bortitzaren bidez aldatzeko ezinaren kontzientzia, eta jazartze armatuaren ondorioz ageri diren jarrera diktatorialen errefusa, elkarrekin dabilta. Ezkerraren eginkizunak demokraziaren inguruan kokatzen dira, sistemak eta estatuak mantentzen dituzten eskusio eta marginazioen aurka; ideia komunista utopia gisa

gelditzen da, hau da, gizarte idealaren nahikundeak sortzen dituen tirabira kritiko eta etikoen sortzailea, gaurko sistema kolokan ezartzeko horizonte helgaitza baino beharrezkoa. Eta, oro har, ezkerak inongo estrategiak ezin dezakeela garaipena garantizatu onartzen du, bilatu egin behar dela, galtzekotan berriz ikusi, eta berriz hasi.<sup>19</sup>

Panorama honen aurrean, ez da harrizkekoa euskal mugimendu iraultzailean gertatu dena. Europako erreferentziak ez ziren batere egokitzen hemen mantentzen zen izpiritu borrokalariarekin, eta Afrika eta Amerika Latinaren mugimendu eta nazionalismo iraultzaileak bilakatu ziren argitasun-gai.

Adibide nagusi batzu itzuli dira, behin eta berriz, erreferentzia gisa, Ameriketara, Kuba aintzindaria, Nikaragua eta El Salvador; Afrikan, Algeriak zabaldu zuen bidetik, Ginea-Bissau, Angola, Mozambike eta, kontradizio bizian, Etiopia eta Eritrea. Oro har, garaitzera edo kasik garaitzera heldu ziren mugimenduak, sozialismoa (marxismoa askotan) eta nazionalismo iraultzailea elkarrekin eramaten zituztenak. Horra non ikas, eta, batez ere, non elikatu optimismo iraultzailea. Berrikitan oraindik, eskualde horiek zeramaten frentea bizi-bizia zen, eta itxaropenez betea; haien borrokek, askatasuna odolez eta bortxaz lortu behar dela frogatzen zuten; elite zuzentzaile eta armatuaren eginkizuna garbi uzten zuten; eta estatu iraultzaileetan jende-eskubideek eta demokrazia formalak zituzten eskasiak edo hausteak errez justifikatzen ziren,

kontutan harturik inperialismoaren erasoak, barne-etsai armatuen presentzia, eta garapen ekonomikoa lortzeko oztopo gaitzak sofritzen zituztela. Hitz batez, leninismo azkarraz animatutako modelo iraultzaile errupturistaren efikazia eta beharra guztiz onesten zituzten modelo hauek.<sup>20</sup>

Baina geroztik, eta bereziki Sobietar Batasunak iraultza mundialari uko egin eta, gauzak zitzu bizian aldatzen ari dira.

**Ameriket**an, hasteko. 1970 arte, gutxi gorabehera, eta Kubaren garaipena oraindik oso hurbila zenean, jazartze armatuak ugariak izan ziren. Hiri-gerrila Argentinan, Brasilen eta Uruguayn; foko kastristak Argentinan, Brasilen, Bolivian, Kolonbian, Guatemalan, Nikaraguan, Perun eta Venezuelan. 1967an, gure artean, ETAn, banatu eta irakurri genuen **Régis Debray**ren liburua, itzulpen kasteilanoaz, *Revolución en la Revolución*, Tupamaroen eragina ere sentitu zen... Egia, **Che Guevara** 1967an hil zuten; Tupamaroen esperientzia 1972an amaitu zen. Baina diktadura eskuindar odoltsuen aurrean, ezkerretako pentsamendu politikoak bide beretik jarraitu zuen hurrengo urteotan.

Diktadura edo demokrazia burgesa, biak zaku berean botatzen ziren: inperialismo amerikanoaren morroiak, burgesia atzerakoia eta ekonomia dependentea, militarrek errepresiorako Panaman formatuak..., berdin aurkitzen ziren estatu guztietan. Irtenbidea ez zen forma demo-

kratikoak ekartzea, baizik eta masa zanpatua eta miserableak askatzeko behar zen sistema guztiz desberdin bat; tamalez, sistema berri hori oso modu zaharrez ulertzen zen, planifikazio ekonomiko zentralizatuarekin eta alderdi bakarraren kontrol politiko-poliziakoarekin usu identifikatzen bait zen sozialismoa.

Azpimarra dezagun hizkuntza erradikal bat erabiltzeko ziorik eskas ez zela, eta ez dela, Ameriketean. Gaur egun, biztanlegoaren % 17k baizik ez du enplegu finko eta aseguratuturik, % 40 goseak dago eta honen erdia miseria gorrian dagoela esan daiteke; bitartean, minoria estu bat (% 5) aberaste bizian ari omen da. Kontraste horiek direla, gose-erreboltak, hala nola Venezuelan eta Perun, ez dira harrigarriak.<sup>21</sup>

Baina erradikalek ez zuten irabazi, Nikaraguan salbu; eta leku askotan, haien esistentzia estakuru, erregimen eskuindar-militar guztiz bortitzak ezarri ziren.

Horiek horrela, 1975etik, diskurtso-aldaketa bat ikusten da Hego Konoko intelektual ezkertiarren artean. Bi gai nagusi agertu ziren eztabaidan. Bata, garapen eskasa eta dependentiaren arteko harremanak; bestea, demokraziaren beharra, bai estaturako, bai eta oposiziorako ere.

Antzeko gauza bat gertatzen da, hain zuzen, oposizioko alderdi politikoetan; ñabardurak nabariak dira, baina Txilen eta Uruguayn bereziki, erradikalismo iraultzailea utzi dute, "integrazio negatiboaren" prozesuan

sartzeko. **Juan Rialen** arabera<sup>22</sup>, prozesu honen edukina hauxe da: ezkerak atxikitzen duela bere ideal iraultzailea, baina joku demokratikoaren erregelak zintzoki onartzen dituela.

Aldaketa horiek sistema sobietarraren krisia baino lehen gertatu ziren; krisi honek areagotu egin du etena. Eta ondorioak nabariak dira gaur egun arte modelikoak izan diren esperientzietan ere.

Nikaraguan, FSLNren barnean, marxistak, nazionalistak, katoliko aurrerazaleak elkartzen ziren. Jarrera "terceristak", Daniel Ortega buru, onartu egin zuen demokrazia errepresentatiboaren lehentasuna. Ene iduriko, jarrea ohoragarria. Galdu egin dituzte hauteskundeak, idealak oraindik bizi-biziak dituzte, eta historia luzea da. Baina modelo demokratikoaren onartzeak, aintzinako modelo zentralista-diktatorialaren gibelatzea suposatzen zuen.

Guatemalan eta El Salvadorren, negoziaketen problema da larriena. Eta mugimendu iraultzaileak mugatzen ari dira, negoziaketen ardatz demokratizazioa bilakatzen delarik. Horrelako programa baten oinarriak plazaratu zuen Unión Nacional Revolucionaria Guatemaltecak 1987an.

Eta oraindik argigarriagoak dira Frente Farabundo Martí de Liberación Nacionalaren jarrerak. 1983tik hona, emeki-emeki baztertu dute "Gobernu Demokratiko Iraultzailearen" alternatiba, "Partehartze Zabala"ren Gobernu Probisionalaren onartzeko.

**Villalobos** buruzagiaren ahotan New York Times-ek ezartzen zituen hitzak, marxismoari uko eginez eta demokrazia errepresentatibo eta pluralista gorai patuz, kazetarien interpretazio gisa hartu behar badira ere, oraingo negoziazioaren oinarriak demokratiko-desmilitizadoreak direla inork ezin uka dezake.

Aldakuntza demokratikoari egokia zaio momentu historikoa.<sup>23</sup> Eta sozialismoarekin identifikatzen ziren alderdi bakarraren nagusitza eta ekonomia planifikatu zentralizatua, ez dira batere modelo erakargarriak. Ameriketara, zutik ditugu modelo horiek Kuban, boterean, eta Perun, borroka armatuan. Noiz arte?<sup>24</sup>

Baina aldakuntzen panorama osatzeko, **Afrika** ikertu beharko dugu.

Hango herrialde askotan ere, estatua eta alderdi bakarra ia bat egiten zituen modeloa krisi gorrian dago.

Kontutan harturik ikertzen ari garena modelo ezkertiarra dela, ezkerreko gobernu eta erakundeen egoeraz mintzatuko gara.<sup>25</sup>

Hasteko, fenomenoaren errealitatea nabaria da. Duela bi urte azeleratu den bilakabidea ezin uka daiteke; demokraziarik ez dago oraindik, baina multipartidismoa nonnahi onartzen ari da, eta marxismoari uko egitea aski jarrera arrunt bilakatu da. Ikus ditzagun zedarri nagusiak.

\***Algerian**, kaleko presioa bultzagile nagusia izan da. 1989ko otsailean, konstituzio berriak



multipartidismoa onartu du, eta sozialismoaren aipamena ezabatu du. Hauteskondeek garbi utzi dute FLNren higadura (Kontutan hartzeko: FLN alderdi bakarra izan da 1962tik 1989ra).

\* **Angolan**, Sobietar Batasunaren babesa eta Kubaren laguntza armatua joan eta, MPLAk negoziazioa (Gbadoliteko Ituna, 1989ko Ekaina) eta multipartidismoa onartu ditu; 1989an, FMIn sartu da. **Dos Santosen** borondatea guztiz perestroikazalea dela aski argia omen da.

\* **Benin** estatua da, hain zuen, demokraziazaileek modelotzat jotzen dutena. 1974ean marxista-leninista zen; 1989ean, marxismoa utzi dute, 1990ean uko egin diote, multipartidismoa onartu, eta hauteskondeak egiteko egutegi bat erabaki.

\* **Burkina Faso** eskualde tragikoa dugu. 1983tik, hango Fronte Popularra marxista zen; 1987an armadak **Sankara** mitikoa garbitu zuen momentutik, amets bat hautsi zen. 1991erako, hauteskondeak pentsatuak ziren, baina etorkizuna ez da batere argia; gisa guztiz, hango mandatariek bere borondate demokratikoa aldarrikatu dute, eta egun berrogei bat alderdi politiko eraikitzen ari dira.

\* **Cabo Verden**, hala nola **Sao Tome eta Printzen**, irekidura demokratikoa, multipartidismoa eta hauteskondeak iragarri dira, era desberdinez, 1989-90etik. Bietan, Alderdi Bakarra dago boterean.

\* **Kongo** ere marxista-leninista zen bere 1979ko Konstituzioan. Ekialdeko gertakariak analizatuz, PCTk, multipartidismoa eta liberalismo ekonomikoa sartzeko erabakiak hartu zituen 1990ean ere, eta honen arabera konstituzio berria onartu da 1991ean.

\* **Etiopian** gertatu berria da **Mengisturen** erorketa. Haizea aldatzen ari zela konturaturik, 1990ean teniente-koronelak berak aldarrikatu zuen marxismoaren uztea eta Marx eta Leninen protestak kaleetatik desagertu ziren. Gisa guztiz, erregimena kondenatua zen. Egia da, halere, Tifren eta Eritrean mugimendu armatuak marxistak direla; baina marxismo honen iraupena ez da batere segurua. FDRPEren buruzagien deklarazioak aski lanbrotsuak izan dira eta, batez ere, Sobietar Batasuna eta Ekialdeko Alemaniaren ausentziaz, Estatu Batuek inposatu dituzte su-etenaren azken baldintzak. Demokrazia bai, diote amerikanoek, baina, hain zihur, ez demokrazia iraultzailerik...

\* **Ganan**, **Jerry Rawlingek** jarraitzen du "iraultzaile" ia mogitu gabe: multipartidismoa ez da biharko.

\* **Moanbiken**, egoera ekonomiko eta militar hain katastrofikoan erdian, FRELIMOk 1989an marxismo-leninismoaren uztea erabaki zuen. Angolan bezala, erretizentzia handiak dira antzinako militanteen aldetik.

\* **Namibian**, estatu liberatu berrian, konstituzioa demokratikoa da, multipartidismoa onartzen duena.

Aldaketen multzo honek ederki erakusten digu trantsizio eta gobernu iraultzaileen krisia. Halere, Afrikako arazoa berezia da. Noraino Mendebaldetik hartutako moldeek zulatu zituzten antzinako ohitura politiko-sozialak, pausatzen den oinarritzko arazoa<sup>26</sup> da. Oro har, alderdi edo mugimendu bakarrak kontrolatzen zuen estatuaren eginkizuna era askaezin batez nahastu da borroka etnikoen arazoarekin. Leku askotan, alderdia eta armada etnia nagusiaren eskuetan egon dira, berdin eskuin edo ezkerretako sistemetan (Etiopian, Ertafrikar Errepublikan, Ugandan, Togon, Beninen, Nigerian, Kongon...), eta nahiz eta oso zentralistak izan boterea kontrolatzeko orduan, administrazioa, usu, antzinako leialtasun tribalen arabera utzi zuten.

Bestalde, sistema erasotzeko edo aldaarazteko, etnia zanpatu edo boteretik apartatuen borroka garrantzitsuak gertatu dira. Bi muturretako adibideak aipatuko: Bereberena Algerian, eta Ovimbundurena Angolan.

Esan dezadan ez ditudala kasu eta arazo guztiak zaku berean sartu nahi. Baina gaur ikertu nahi dudana arazoa argitzeko, lehen aipatutako modeloaren hutsegiteari buruz mintzatuz gero, leninismoa berriz ere aipatu beharko dugu.

Leninismoa, Afrikan, denbora berean oso plastikoa eta oso zurruna izan da.

Plastikoa, ederki moldatu delako jarrera nazionalista-diktatorialekin. Kasu batzutan (**Amilcar Cabrale**z ari naiz pensatzen), zintzotasun ideo-

logiko eta politikoak nabariak izan dira; beste batzutan (Kongon, adibidez) aski zen bere burua antikolonialista-iraultzailea aldarrikatzea, leninismoak justifikatzen duen abangoardiaren botere absolutuaren erabilpena aldarrikatzeko eta, kontzientzia aintiinperialista onez, diktadura lotsagarrian amiltzeko! Plastikotasun hau, beraz, diktadura justifikatu nahi zuten nazionalismo etniko antikolonialista guztiakin ongi konpontzen zen.

Baina denbora berean zurruna, zeren eta behin diktaturaren printzipioa onartuz gero, beti antzerako ondorioak ekarri bait ditu: estatu polizialak, miseria gainditzeko gauza izan ez diren gestio ekonomiko zentralizatuak, masa-mugimenduetatik isolatzea, jende-kontzientzia aldatzeko ezina (Adibidez, Algerian edo Etiopian nabaria da zein gutxi hunkitu duten masen kontzientzia propagandazko urte luzeek).

Modeloa ez da bakarrik desegokia Munduko Ordena Berriak lekurik uzten ez diolako. Barnetik ere usteltzen ari zen.

---

**Laugarren Atala:**  
**Modeloa agortua duen mugimenduak aurrera jarraitzen du!**

---

Bada Euskadiko mugimendu iraultzailean elaborazio idatzi bat; modelo esplizitu honen sustrai ideologiko orokorrak eta modelo honi dagokion koiuntura geopolitiko ahituak bukatzekotan direla esatea, guztiz zilegia da. Zilegia baino, nabaria.

Nazioartean, inperialismoaren aurkako sistema sozialista eta herri menperatuen elkarkidetza antzinako urak dira, guztiz joanak. Sobietar Batasunak uko egin dio nazioarteko iraultzaileen buruzagitzari, eta orain arte adibidetzat aipatu diren estatu gehienak perestroika antimarxistan abiatuak dira.<sup>27</sup>

Krisian dagoena ez da bakarrik sistema sozialista. Diktaduratik demokraziara pasatzeko moldeetan ere, haustura iraultzailearen modeloa deskalifikaturik dago, paktuz eta **demokrazia errepresentatiboa /merkatu-ekonomia** binomioa onartuz egiten diren trantsizioen aurrean.

Eta, oro har, alderdi bakar eta hierarkizatuaren rol nagusia guztiz arbuatuta dago.

Horiek horrela, ez da inongo ausardia esatea erreferentzia horiekin dabilen edozein mugimenduk, modelo orokorrak nozitzen duen ahitzea bera sofritu beharko duela. Gureak ere bai.<sup>28</sup>

Baina, halere, hemengo borroka ez dago batere agortuta. Jarraitzen du(eta, agian, jarraituko!). Zergatik hori?

Nere iduriko, kontsideramendu estrategiko bat egin behar da hasiera-hasieratik. Hemengo borroka darrai, zinez, baina edukinaz aldatu da.

1978an, modeloa elaboratzen denean, ezker abertzalearen egin-kizuna ez zen soilki bere buruari begira pentsatua izan: Hego Euskadiko biztanlego osoari hedagarri ikusten

zen. Ikuspegi zabal honen funtsean, fronte-lerro nagusiak indarrak nola banatzen zituen jakitea zegoen: Estatu eta bere morroiak alde batera, eta populazioaren gehiengoa bestaldean, ENAMen ondoan hain zuzen.

Orain, egoera beste bat da. ETaren borroka isolatuta gelditua da: inor gutxik onartzen du Espainian, eta gero eta jende gutxiagok Hego Euskal Herrian, gizartearen aldakuntzak, apolitizazioa, kontrainsurgentzia eta Ajuriaenea direla medio. ENAMen militanteak, lagunak eta aliauk dira, beste inor gabe, ETaren alde agertzen diren bakarrak. Isolamendu hau modelo iraultzaileen marginazio orokorrarekin ondo lotzen da, eta ez da harrigarria.

Harrigarriago dena erresistitzen duen jende-multzoaren zabalpena eta indarra da. Honek azalpen bat merezi du.

Hasteko, gure iraganaldi historikoen dekalage iraunkorra aipatu beharko da. Frankismoa berandu amaitu zen eta trantsizioa zambuluka ibili zen luzez; horregatik, Euskadiko mugimendu iraultzaileak izan du hasiera berantiarra eta iraupen luzea, European izandako antzeko fenomenoekin konparatzen bada. Berdin sistema uzkaileteko posibilitate hurbila ikusteko, berdin mugimendu sozialen eragina haztatzeko, berdin bere buruan konfidantza atxikitzeko. Seguraski, duela hamabost urteko oldar iraultzaileak inertzia asko galduko du Espainiaren egoera demokratikoa European normalduko denean; laster desafio hori zutik izanen dugu gure aurrean.

Hortik aparte, eta honen gainera nere ustez, lehen partean aipatu dugun kapital afektibo eta sinbolikoa daukagu.

Kapital sinboliko hau aberats eta esanguratsua da; denbora luzez oratu da, eta ez da errazki aihenatuko<sup>29</sup>. Kapital hau orokorra da, esan nahi bait da bizitzaren aspektu guztiak, egunero-kotasuna, politika, bai eta kultura ere, bere barnean integratzen dituela. Hain zuzen, honen ikertzeak erakusten digu **nola** lotzen diren ETA eta haren ingurumen soziala, edo, beste era batez esana, zer harreman irrazional eta afektibo konplexu bilbatzen diren borroka armatuaren eta laguntzaile eta bozemaleen esparruaren artean.<sup>30</sup>

Ikuspegi honen barnean, bizi-bizia da Euskal Herriak sofritu duen bortizkeriaren kontzientzia. Gainera, biolentzia historikoa eta sofrimendu pertsonalak estuki lotzen dira.

Ezin ukatuzkoa da biolentzia historikoa. Karlistadak, 1936ko agresioa, frankismoaren urteak, trantsizioaren hautsi-mautsiak eta Hego Euskadiko zatitze instituzionala, oroimenetan dira. Honekin batera, belaunaldi oso baten historia pertsonala, 1962tik hasirik: hildakoak, tortura, kartzela,... askoren esperientzia zuzenak dira.

Gutarteko askok nekez ahantziko ditu indar errepresiboen harrokeria, tortura, masmediaren ustelkeria, politikarien joku zikina...; nekezago oraindik, lagunaren martirioa eta oraindik errepresioaren pean edo hil arriskuan direnen egoera.

Biolentziaren presentzia iraunkor honek ikerle askoren interesa sortarazi du. Batzuk, kontzientzia nazionala edo taldearen kontzientzia politikoa eratzeko eginkizuna aitortu diote estatuaren bortizkeriari, jende askok, hain zuzen, errepresioaren aurka aurkitu bait du bere bidea.<sup>31</sup>

Azken denboretan, errepresioa diskriminatu egin da. Hasieran edonoren gainean erortzen zenean, jende asko bildu du ETArekin proiektuaren inguruan; orain, talde jakin baten gainean obratzen da, baina jende-multzo honek bere indarrak atxikitzen dituen bitartean, barne-harremanak trinkotzen dizkio. Problema beste bat da: talde lasterkatuak errepresioa sofritzen ez duten beste jendekin komunikatzeko gaitasuna galtzen du, errepresioaren aurreko sentimenduak iragangaitz bilakatzen dira, eta honek lehen aipatutako isolamendua berriz kontsideratzera ekartzen gaitu.

Baina, edozer gerta ere, oraindik zabala den jende-multzo batengan erresistenteak herriko heroe bezala sentitzeko jarrera bizi-bizia dago. Eta honen ondoan dialektika berezia hedatu da, edozein jarrera ideologiko nazionalistarekin egokitzen ahal dena. Nola ez aipa **Telesforo Monzon**en kasua!: haren inguruan egin ziren lehen bilalditak datorren hariak jarraitzen du. Amore ematen ez duten abertzale erradikalak dira protagonistak; antzinako eta oraingo gudariei zor zaie libertatea, eta, ondorioz, errespetua eta, ia ia, gurtzomoduko bat ere...Jarrera honek leninismoa elikatzen du, barne-kritika

oztopatzen du, eta klandestino helgaitzen eskuetan uzten du aldakuntzaren zuzendaritza. Baina ez du harreman zuzenik inongo sozialismo iraultzailearekin, inongo ortodoxia marxistarekin.

Berriz ere, demokraziaren aurrean lehiakide bakar gisa aurkezten den nazionalismoarekin egin dugu topo.

---

### **Bukatzeko: Borrokak iraun dezala**

---

Puntu honetara helduta, hasten da ariketa arriskutsuena. Gauza bat da dagoena deskribatzea, nahiz eta askotan zepoz eta aprioriz betetako desmartxa izan; beste bat, etorkizunari buruz aurreikuspenak plazaratzea. Eta gure arazoan, Europan nazionalismoa hartzen ari den munta eta esannahia ikusirik, aiheru guztiak labor edo desbideratu gerta daitezke.

Gisa guztiz, argi dena hauxe da: modelo estrategikoa aldatzeko beharra. Ezkerraren aldetik ikusita, bederen, mugimendu progresistari jarraipena eman nahi bazaio, orain gutxi arte Euskadiko ezker iraultzaileak onartzen zituen dogma batzu gaindituzat jo daitezke. Hiru aipatuko ditut:

- Langile-klasearen Alderdiaren funtsa eta eginkizuna.
- Abangoardia militarizatuaren errola.
- Zentralismo Demokratikoa.<sup>32</sup>

Estrategia eta jarrera berrien biltzea beharrezkoa da. Ez gara hutsetik abiatuko, baina helmuga non den inork ezin esan lezake.

Abiapuntua, eta handikeriaren beldurrik gabe esan behar dugu, munduko egoera bera dugu.

Ikuspegi optimista eskuindarra komunismoaren hiltzea festatzen ari da eta, denbora berean, modelo demokrata-liberalaren mundializazioa ospatu nahi du. Baina goizegi dabil; demokratizazioak garapen ekonomikoa nonnahi ekarriko duela inork ez du oraindik frogatu. Badira kasu batzu, hala nola Turkia, Txile edo Mexiko, liberalismoaren lorpenzat jotzeko; badira, halaber, demokraziarik gabe indar ekonomik berezia lortu duten Asiako "herensugeak". Baina, seguraski, pobrezia eta marginazioak jarraituko dute. Halere, haien edukina ez da berbera izango.

Duela urte batzu inperialismoak Hirugarren Mundua ustiatzen zuela esatea egia borobila bazen, gaur egun beste deskripzio bat egin beharko dugu. Inperatibo ekonomikok direla eta, Iparraldeko eskualde aberatsek gero eta gutxiago inbertitzen dute Hegoaldean; oraingo joerari "autozentratze" ekonomik eta kulturala dei dakioke.

Esan nahi bait da, ustiatze baino gehiago, **marginatzea** dela joera nagusia. Marginazioa eta integrazioa, fenomeno mundialak bezala: komunikabide arinen denboretan, elite guztiak integratzen dira bizimodu estandarrean; marginazioaren feno-

menoa guztiz hedatua da Hegoaldean, baina Iparraldeko jende asko ere ikutzen du. Eta marginatu guztientzat, gauza bera: sistemak **erakusten die** lor daitekeen guztia eta, denbora berean, **ez die deus ematen**.

Seguraski, "marginazio-integrazio" nazioarteko logika horrek ondorio estrategikoak izango ditu. Miseriak piztuko du errebolta; erreboltaren estrategiak, marginatuen indarra eta iraultzak duen tradizio unibertsala eta humanista bildu beharko ditu, jazartze itsu eta odoltsuetatik jalgitzeko, eta komunismoaren horizonte utopikora hurbiltzeko.

Hutsetik ez gara abiatzen, beraz, erreboltatzeko arrazoiak izan badirelako. Hutsetik ez, ideia komunisten inguruan Europan sortutako etika askatasunzaleak urte luzeak dituelako. Hutsetik ez Euskal Herrian ere: beti Estatuaren aurka bere bizitza kudeatzen ikasi duen gure komunitatean, erreboltaren bidez marginazioa gainditzeko gaitasuna eta tradizioa ditugu. Baina estrategia berri baten bilatzeak bere legeak ditu; lehen errebolta proletarioetatik mugimendu komunista eratu baten sortzera, urte asko pasa zen. Orain ditugun jazartzeko beharrak eta gaitasunak urrun dute horizonte estrategiko eta ideologikoa.

Honek gure borrokatzeko moralala aldatu behar dela esan nahi du; "Laster irabaziko!" agintzen zuen modelotik, erresistentziarako jarrera iraunkorrera joan beharko dugu. Eta hau dateke, nere ustez, irautearren ordainduko den saria.

Baina eboluzio-posibilitate hau ez da batere seguruenena. Tradizio komunista libertarioa, liberalismo politikoa bere jatorrizko zentzuan, gure herriak erakutsi duen autoeratzeko gaitasuna, eta munduko marginatu eta iraultzaile guztiekin lotzen gaituen ikuspegi humanista orokorra estekatu nahi ditu, elkarrekin, jarrera honek. Estatuaren aurka eta autokudeatzearen alde, dirigismo politikoarekin haustea: programa ederra... Horrelako edo antzeko jarrera baten alde iharduteko bada jendea Euskal Herriko zazpi probintzietan. Halere, ez dut pensatzen ENAMen bideak, edo bide nagusiak behintzat, hortik joko duenik.

Oraingo jarrera ideologiko-estrategikoak kinka larrian sartuko dira dudarik gabe. Han, bide desberdinak irekiko dira.

Bat, mugimenduaren krisi orokorra eta haren suntzitzea. Hori izango zen sitemaren alderdiek nahi dutena; eta ez da arrunt bazter daitekeen gauza. Bat baino gehiagori entzun izan diot lehertuko den krisia hilkorra izanen dela, haren aitzinean inongo neurririk ez delako hartua izan. Nere ustez, ikuspegi hau sobera ezkorra da. Borrokan jarraitzeko prest dagoen jende-multzoa zabala eta zaildua da: iraun egingo du.

Demokraziaren onartze soila da bigarrena. Inoiz negoziazioa ematen bada, arrisku hau zutik dago. Autobiaren arazoarekin, Lurraldeak bultzatu duen konpromisoak ekologista eta antiautoritatio anitz izutu du, ikusirik zein uzketak egin diren eta zein erraz erasotu den oposizio erradikala.<sup>33</sup>

Euskadiko Ezkerraren historiak frogatu du noraino hel daitekeen iraultzaile ohien lotsagabekeria. Iraultza bideak ezinezkotzat joz, sisteman integratu dira, garaileen baloreak berenbaitaratu dituzte, eta borrokan jarraitzen dutenen menpekotasuna ezarri dute beren politikaren ardatza.

Negoiazioak, bakea ekarriko badio ere Euskal Herriari, badakar sisteman integratzeko arrisku handia; indar-harremanen egoera kontutan harturik, erraz ikusten da nork ezarriko dituen baldintza garrantzitsuenak.

Agian, preso eta erbesteratuen askatasuna ez da prezio horretaz pagatuko. Baina eremu honetan hobe da baldintzarik ez ezartzea, kolektibo horren zortea konpontzea gure herriak oraindik duen lehendabizietako beharren bat delako. Halere, sisteman arrunt integratzeko gogoia ez da gaur egun ETA-HBk erakusten duten jarrera; negoziaketaren hurbiltzeak gauza anitz alda ditzake, errealismoa dela medio. Ikustekoak, ikusteko.

Hirugarren bide bat, bere horretan jarraitzea da. **Castro** bezala, hil arte komunista marxista-leninista.

Seguraski, horrelako jarrera batek ultraezkerretako galaxian marginatuta bizitzera kondekatuko du aukera hori egingo duen taldea. Eta mugimendu zabal batetan txertatuta egon direnentzat, deslektute honek hutsegite handia suposatuko du. Nere ustez, aukera hau egiten bada, gutxiengo batek egingen du, ETAk ezagutu dituen deslotze ezkertiarren bidetik.

Gisa guztiz, batzuek bide bat hauta dezakete, besteek bestea. Baina, nere eritziz, posibilitate guztien artean gehien ikusten dena nazionalismo bortiz eta hutsarena da. Abotsak entzun ditugu berrikitan, eta antzinako beste abotsei egiten diete oihartzuna: "komunismoak huts egin du; zutik gelditzen den balore bakarra nazionalismoa da; eta gure herria bizi dadin, ongi jakin behar dugu inongo internazionalismo edo humanismoak ez dituela konfliktu nazionalak konpontzen... Indarra da balore nagusia, etsaia hil ala hark gu hiltzea, mailua ala ingudea izatea... hori dugu aukera bakarra", diote.<sup>34</sup>

Eta jarrera honek finkoak ditu sustraiak, ongi lotzen da Europako aktualitatearekin, eta kontingentzia ideologiko eta geopolitiko guztien gainetik iraunen duen koherentzia agintzen du. Gainera, ETAREN baitan izan den nazionalismo erradikalaren segida zuzenean dator.

Nazionalismo hori behin eta berriz aipatu dut lan honetan: inork ez dezan pentsa proklama sozialista eta marxisten urte luzeek menderatu edo hezi dutenik.<sup>35</sup>

Jarrera nazionalista soila ondo ekarria da Balkanetan gertatzen ari diren gertakariei begira. Muga-arazoak tiroka "konpontzen" direnean, auzoan denek aurki ditzakegu garbitu nahi gaituzten "serbiar" potentzialak, eta Jugoslavian marxismoak eta federalismoak konpondu ez dituzten arazoak Espainia batuan oraindik larriagoak izan daitezkeela baieztatzeak ez dirudi astakeria.<sup>36</sup>



Ongi dator hain koldarrak eta ezgauzak diren politikari nazionalista instituzionalen epelkeria salatzeke ere: dudarik gabe, orain dugu aukera gure borondate nazionalista mundu guztiaren aurrean agertarazteko, eta ez kokilduak egoteko, Madrili begira, gure inguruan arazo nazionalak borbor batean ari diren bitartean!

Baina jarrera hau azken ondorio-etaraino eramaten bada, askatasun nazionala eta iraultza komunista askatuezinez lotu nahi zituen belaunaldi oso baten ametsa pikutara joango da. Eta horren onartzeko jende asko ez da prest izanen.

Nazionalismo iraultzailea kontra-dikzioz betetako eremua zen;

borondate unibertsal komunista eta gure herriaren askatasuna elkarrekin jokatzeko, mila indar eta kemen egin genituen. Aurre egin genien Euskal Herriko nortasun nazionala internazionalismo espainolistaren aldarean sakrifikatu nahi zutenei; aurre egingo zaio ere balizko nazionalismo estu eta berekoitari.

Nere ustez, horrelako nazionalismoa ager liteke gure artean, eta bizikorra izango da.

Baina, agian, hau guzti hau espekulazio hutsa baizik ez da, eta Euskadiko mugimendu iraultzailearen jarraipen aurrerakoiak harrituko gaitu. Horrela gerta baledi, pozik aitor nezake tronpatu naizela.

---

## Oharrak

---

- 1 **Amilcar Cabral** Ginea-Bissako PAIGCen burua zen. Marxista-leninista, hamaika urtez borrokatu zuen independentzia lortzeko; portugesez hil zuten Conakryn, 1973an, raid baten bidez.
- 2 **Jokin Apalategi** bi jarrera ideologiko bereizten ditu ETaren barnean eta inguruan: batak nazioa eskakizun demokratiko gisa kontsideratzen duena, tradizio anticolonialistaren barnean; besteak, nazioa klase-borrokaren marko formal gisa hartzen duena. Ikus, adibidez, *Los Vascos, de la Autonomía a la Independencia*, 1985. Marxismoari buruzko jarreretan, nik esandakoa gauza bera izan gabe, haren hipotesia argigarria dela iduritzen zait.
- 3 Marxismo-leninismoaren onartzea beste parada askotan ere ikusiko da. Adibidez EHASen fundazioan (1975eko azaroan). Gero, ENAMen inguruan eta barnean ibili den intelektual askoren izkribuetan; adibide gisa, **Justo de la Cueva** hartuko dut, 1982an IPESek egindako Soziologia Ikastaroan marxismoa goraitpatzen duelarik. Bai eta formazio-kurtsiloetan ere; oso hurbil dugu oraindik IEGA gazte mugimenduaren sortzea Ipar Euskal Herrian, eta marxismoaren ikastea zegoen haien asmo hezitzaileen artean.

- 4 Ideologia eta strategiaren gauzatzeari buruz, anitz idatzi da. Dudan ezagutza zuzenaren gainean, arestiko dokumentuak erabili ditut bereziki. Besteak beste: V *Biltzar Nagusiko Aktak* (1967), *Burgosko Auziperatuen Gutuna* eta *Zutik 62* (1971), *Nazio Askatasunerako Euskal Militar Erakunde Sozialistaren Agiria* (1974eko azaroan), *ETA frente al Juan Carlismo* (1975), *Zutik 66* (1976ko martxoan), eta **Argalaren** izkribuak 1976 eta 1978etan.
- 5 Idazki desberdinen artean bi baliatu ditut bereziki. Bata **Periko Ibarren** tesia (*El Movimiento Obrero en Vizcaya*, 1987), mugimendu asanblearioa eta modelo piramidalaren arteko harremanak hobeki zehazteko; bestea, **Pako Letamendiaren** artikulua bat Jakinen (*Ezkerra Euskadin*, 1988).
- 6 Gainera, ENAMen fundazioan jarrera asanblearioak oso ongi ikusiak ziren. EHAS bere hasieran (1975), hala nola LAB bera (1974), langileen demokrazia zuzen eta asanblearioaren aldekoak ziren. Agian, azpian diren errekak berriz dira azaleratuko.
- 7 Intenzio eta ikuspegi desberdinekin, **Aranzadi, Arpal, Joxe Azurmendi, Corcuera, Ortiz Osés, Zulaikak**, besteak beste, aipatu dituzte estrategia esplizitu eta manifestu idatzietatik kanpoan gertatzen diren faktore emozionalak, berezitasun kulturalak edota egunerokotasuna gobernatzeko ohitura sozialak.
- 8 *Sobre la identidad colectiva en el País Vasco*. (1985)
- 9 Azkenetako artikulua bat dugu "Les modes de transition en Amérique latine, en Europe du Sud et de l'Est", **Terry Lynn Karl** eta **Philippe C. Schmitterek** idatzia, *Revue Internationale des Sciences Sociales*, 128, 1991eko Maiatza. Zenbaki osoa dagokio transizioaren arazoari.
- 10 **Raymon Aron** eta **Zbgniew Brzezinski** ditugu, hain zuzen, jarrera honen aurkezleak. Alta, bada totalitarismoari buruz erreflexio ideologiko eta metodologiko bat, **Hannah Arendt** edo **Karl Popper**ekin egin zuten bezalakoa, guztiz esanguratsua gaur egun ere.
- 11 Nazionalismoaren berpiztea da, ikerle askorentzat, gai nagusi eta kezkarri bat. Ekialdeari buruz, populismo faxista-antzeko batekin lotzeko arriskua azpimarratzen da. Hona hemen **Lilly Marcouren** testu bat: "Mais à la joie de voir s'écrouler le mur de Berlin (...) ont succédé les inquiétudes, et même l'angoisse devant l'émergence d'un nationalisme meurtrier, de querelles inter-ethniques qui frôlent la guerre civile et pour finir, le retour à un néo-fascisme de type populiste". "Le "socialisme réel: un avenir disparu", in *Colloque international sur Les défis démocratiques, de l'Amérique Latine aux pays de l'Est*, Lusanne 1991 apirila. Halaber, ikus **Ralf Dahrendorf**, *Réflexion sur la révolution en Europe, 1989-1990*, Paris 1991.

- 12 Bibliografia ugaria da. Besteen artean, zabalena: **O'Donnell, Schimtter** eta **Whitehead**, *Transitions from Authoritarian Rule*, 4 liburuki, Johns Hopkins University Press, 1986; espainolez, **Julián Santamaría**, *La transición a la democracia en el Sur de Europa y América Latina*, Madril 1982.
- 13 Espainiako kasua eta Konstituzioaren 8. artikulua ezagunak zaizkigu: depuratu gabeko armada frankistak Espainiaren demokrazia eta batasuna defendatzeko "misio" berezia ukan zuen, Mendebaldeko Konstituzioek armadari emaiten dien leku normalaren gainetik. Uruguayn, armada ez hunkitzeko legea erreferendum batek onartu zuen; baina Hegoameriketako leku askotan, armadaren inpunitatea sistema blokeatzeko edo oztopatzeko gaitasunarekin uztartzen da: Txilen, militarren zuzendaritza antzinako golpisten eskuetan gelditu da; Brasilen, diktadurak inpunitatea segurtatzeko emandako erregelak, erregimen berriak onartu zituen besterik gabe; Argentinan, **Alfonsín** ederki oztopatu zuten militarrek, eta **Menemek** berehala onatu zuen amnistia orokorraren sistema. Hitz batez, justizia historikoari egin zitzaion ukoak militarren leku berezia eta kontrolagaitza indartu zuen, beraien interes eta ideien aurka demokrazia joango ez dela segurtatzen diena.
- 14 Klase-edukinaren problematik aparte, kritika anitz egin zaio demokrazi sistema honi. Soziologia aldetik, egonkortasun sozialaren aldeko joerak primatzen direla, eta gutxiengo militanteak itozteko mekanika dela esan izan da. Kritika politikoak, bere aldetik, argi uzten du erabaki handienak parlamentuetatik kanpo eta, noski, herri-kontsulta zuzenik gabe hartzen direla. Azken finean, demokrazia errepresentatiboa tresna egokia da buruzagiak aldatzeko, eta guztiz desagokia, berriz, gizartea aldatzeko.
- 15 Horretaz zerbait idatzi nuen 1985eko Martxoan, gero *Eginen* eta *Herria 2000* *Elizaren Autodeterminación de los Pueblos* liburuan argitaratu zena. "EUSKADI-EUROPA. Modelo iraultzaitetik errepresioaren justifikapenera" zuen izenburua, eta ohargabe pasatu zen.
- 16 Gai horretaz lan bat argitaratu nuen *Jakin* aldizkarian, 1988an: "Ezkerra European".
- 17 Beste lan askoren artean, ikus azken liburu "enziklopedikoa": **Hervé Hamon** eta **Patrick Rotman**, *Les années de rêve eta Les années de poudre*.
- 18 Testu oso hurbila eta argigarria dugu *La Orda d'oro*, **Nanni Balestrini** eta **Primo Moroni** (1988)
- 19 Hitz batez, demokraziaren funtsa onartzea beste ihardukera berri batez jabetzea da: ez herriari aldakuntza miresgarri eta seguruak agintzea, baizik

eta, egoera aldakor hauetan, demokraziaren formen errespetuari lehentasuna ematea, edozer gerta ere, talde batek galdu ala garaitu, guztien libertatea benetan errespetatua izan dadin... Formulazio hauek aurkitzen dira usu orain. **Adam Przeworski** (*Ama a incerteza e serás democrático*, 1984), eta **Norberto Bobbio** (*Il futuro della democrazia*, 1984), oso idazle aipatuak dira. Baina sistemaren oinarri ekonomiko-sozialaz hain gutxi ahal izateak ezin bete ditu egiazko justiziaren gutziak; hobe da sistema hori demokraziaz gobernatzea, hobe demokrazia horien joku-erregelak askatasunzaleak izatea, baina demokraziak berdintasun ekonomikorik gabe eskas duena, egun batean, modu batez edo bestez, lortu beharko da.

20 Jarrera honen laburpen argi eta dokumentatu gisa, intelektual eta militante europar batek idatzitako liburua gomenda daiteke: **Jean Ziegler**, *Contre l'ordre du monde. Les Rebelles*. 1983. Justifikatzen duen leninismoa izendatzeko erabiltzen duen hitza, ultrajakobinismoa da.

21 Populuen miseria ikusita, Eliza Katolikoaren parte eder batek onartu zuen iraultzaren beharra. Fenomenoa nabaria da 1968ko Medellingo Konferentziatik aurrera. Oinarritzko Komunitateek eta Askapenaren Teologiak Euskadiko mugimenduan ere izan dute ukaezinezko eragina.

22 *Las Transiciones en América Latina en el umbral de los años noventa*, 1991.

23 **Ali Kazancigilen** hitzetan "Zeitgeist'a demokraziaren alde dago" (*Le temps de la démocratie*, Editoriala, 1991).

24 **Fidel Castroren** epopeia iraultzailearekin bat egin daiteke, haren erregimen diktatorialarekin batere ados egon gabe. Egia borobil eta erraz hau, ulergaitz gertatzen zaio gure aberkide askori.

25 Inork ez dezan pentsa diktadura eskuindarren izate odoltsu eta lotsagarriaz ahazten garela. Baina lan honen xedea Euskal Herriko ezkerren egin daitekeen erreflexioa erraztea da. Eta gure artean inoiz ez dut entzun **Mobutu** eredugarria denik, nahiz eta behin baino gehiagotan **Mengisturen** aldeko jarrerak ikusi...

26 **Ange-Severein Malanda** filosofo kongoarraren irakurketa argigarria da. Haren liburu ezagunena, *Henri Lopes et l'impératif romanesque*, 1987.

27 Egunen batean, bakea lortuta, ETAREN barne-historia eta ENAMEN jarrera publikoak parekatzeko parada izanen denean, interesgarria izango da ikustea zer harreman den ETAK edukitako nazioarteko laguntza internazionalisten eta ezker abertzalearen komunikabide publikoen jarrera geopolitikoaren artean. Aipa dezadan, hale ere, zer ondorio izan dituzten demokratizazioen

prozesuek eta nazioarteko oreka inperialismoaren alde haustek: Algeriaren kasu nabaria denen gogoan dago; atzo iraultzaile lagunak zirenak espulsatu zituen biharamonean.

28 Modelo orokorraren ahitzeari buruz, eta ezker abertzalearen egoera orokorraz, ekitaldi bat egin nuen Iruñean, 1990eko Udako Euskal Unibertsitatean. Laugarren atal honetan aipatuko ditudan gauza gehienak han hedatuagoak aurki daitezke.

29 PNVri buruz, hain zuzen, arakatu du **Alain Darrék** fenomeno hau ("Le PNB: Un Mouvement périphérique et totalisant". *Rev. Fran. de Science Politique* 40-2, 1990 apirila). Baina, nere ustez, analisia euskal nazionalismo osoari zabal dakioke, eta sarkorragoa dateke oraindik ETAREN inguruko mugimenduan.

30 Euskadiko mugimendu abertzalea ikertzeko, ongi da esparruak bereiztea. **Zergatik** borroka? galdeturik, naziogintza eta kanpotik ezarritako oztopoak aipatuko ditugu. **Zertaz?**, tresna ideologiko eta estrategikoaz mintzatu behar. **Nola?** galderak, berriz, aipatutako faktore kultural-afektiboz iketzera eramango gaitu. Esparru guztiak lotzen dira elkarrekin, baina batek ezin beste gainerakoak esplikatu edo estal ditzake.

31 **Ortzik** askotan idatzi du horretaz. Beste bi aipamen: **Francis Jauréguiberryren** tesia (*Question Nationale et Mouvements sociaux en Pays Basque Sud*, 1983), eta **Kenneth Medhurst** (*The Basques*, 1972, eta *Basques and Basque Nationalism*, 1982).

32 Hauek berak aipatu zituen **Anicet Le Porsek** PCFren egoerari buruz, 1991eko abuztuaren 26an.

33 Badakit HBren inguruko militanteek nekez sinets dezaketela beren ezkerrean zeozer dagoela, eta iraintzat hartzen dutela negoziaketeen bidez sisteman integra daitezkeela entzutea. Baina kritika hori egin egiten da. Hona hemen 1911ko irailean Autobiaren Aurkako Taldeek argitaratu zuten txostenaren zati bat:

"Lurraldeak, PNVEk eta HBk autobiak egin duten akordioa salatzen dugu (...) Irurtzun-Andoain autobiak badu aurrerantzean Euskadin borrokan diharduen sektore baten onespina. Gertaera hau dela eta, erne ibili behar dugu beste borroketan ere pasa daitekeenaz. (...). Masa-komunikabideez, instituzioez eta abarrez baliatuz, gizartea manipulatu eta gehiengo/gutxiengo, dirijente/dirijituetan sailkatzen duen sistema demokratiko ustel hau errefusatzen dugu (...) Bai, hamaika ikustekoak jaioak gara!".

34 Ez dakit zergatik, baina argudio horiek entzuteak kezkatu egiten nau eta faxismoaz pensatzera bultzatzen nau. Badakit, jakin, faxismoaren kontra sortu dela euskal nazionalismo iraultzailea eta horrek, nonbait, horrelako tentazioaren aurka txertatu gaituela. Baina nazionalismo hutsa beldurgarria da. Oso lan zahar eta klasikoek (**C.J.H. Hayes** 1928an; **Erich Fromm** nazionalismoari buruz...) erakutsi ziguten nola aberri umiliatu baten aldeko jazartuek jarrera guztiz higuingarriak har ditzaketeen gero. Kezkaz eta interesez jarraitu dut, adibidez, **Jon Miranderi** buruz argitaratu dena. Nola ahaztu 1984ean **Luis Mari Mujikak** idatzi zuena?: "Bakezaleei borroka proposatzen die; sasi-demokratei faxismoaren efikazia (eta Euskal Herriaren kontestuan "indarkeriaren" bidea; ez, ordea, marxismoan errotua ETArena izan den bezala)" (*Miranderi Justizia egin behar*).

Nire ustez, faxismoak merezi duen justizia bakarra kondenarena da; **Jose Maria Larreak** 1985ean argitaratu zuen *Miranderen lan kritikoak* aski argigarria da horretaz. Gero, **Joze Azurmendik** idatzi du *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler, Miranderen pentsamenduan* (1989), eta irrazionalismoaz eta biolentziaz idazten duenak durduzatu nau biziki.

35 ETako militanteen egiazko borroka abertzaletasun hutsa dela errepikatu da maiz gure inguruko giroetan, eta azken denboretan hain zuzen. Testigantza literario gisa **Txillardegiren** *Exkixu* liburua aipatuko dut (1988).

36 Ekialdeko gertaera nazionalak arakatzeko HBk egin dituen prentsurrekoak eta komunikatuak ezagutzea merezi du. Askatasun nazionalaren alde pozik ageri da koalizio abertzaleak, baina oso gutxi aipatu du berpizkunde nazionalista honen azpian den internazionalismo sozialistaren hutsegite nabaria. Honek nonbait, ezker abertzaleak aurkitzen dituen zailtasun ideologikoak konfirmatzen dizkigu; eta hemendik aurrera egin daitekeen aukera nazionalista hutsaren aurredestamen bat ematen bide digu.